

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### POBESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Toba aurkintzan dagoen finka errentan emateko enkantea**

Jakinarazten da ezen, 2016ko urriaren 5eko kontzejuan hala erabaki zenez, enkante publikora ateratzen dela Toba aurkintzan dagoen finkaren errentamendua.

Finka hau 5 urterako errentamenduaren enkantea, lote bakarrean:

Udalerria: Erriberagoitia, 5. Poligonoa, 187 lurzatia, Toba aurkintza.

Lotearen azalera guztira: 2,6144 ha.

Kontratuaren iraupena: bost urte, errentamendu kontratua amaitzen den urteko iraila arte.

Lizitazio oinarria: 170 euro hektarea eta urteko, eta zenbateko horretatik gorako eskaintzak baino ezingo dira aurkeztu.

Ordaintzeko modua: Esleipendunak behin betiko esleipena jaso eta hurrengo bost egunetan ordainduko du lehenengo urteko errenta, baldintza agiri honen xede den errentamenduagatik administrazio batzarrari ordaintzeko konpromisoa hartu duena. Errenta hori, hurrengo urteetan, esleipen urtea betetzen den eguna baino lehen ordainduko da, dagokion KPIa igota.

Bermea: Behin betiko bermea lizitazio zenbatekoaren ehuneko sei (ehuneko 6) izango da, eta behin betiko esleipena jaso eta hurrengo bost egunetan sartu beharko da; baldintza hori bete ezean, esleipena indarrrik gabe geratuko da.

Eskaintzak aurkezten dituzten nekazari guztiek egiaztatu egin beharko dute alta emanda daudela Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailean.

Eskaintzak aurkeztea: Interesdunek gutun azal itxian aurkeztu behar dituzte eskaintzak enkante egunean, zeina ALHAOn argitaratu eta 10 egunera egingo baita; asteburuan egokitzen bada, hurrengo lehenengo egunean.

Enkantearen lekua eta ordua: Pobesko gizarte etxea, 17:30ean.

Pobes, 2016ko azaroaren 3a

*Lehendakari errejidorea*  
**MARGARITA HIERRO GÓMEZ**